Lasarte-Oriako Udalak laguntzen deialdia egiten du Derrigorrezko Hezkuntzako mailei dagozkien ikastaroetako (Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza) edozeinetan ikasturtean matrikulatutako ikasleentzat Lasarte-Oriako saltokietan eros daitezen eskolako materialerako.

### ✱ Non eros dezaket eskolako materiala?

Eskolako materiala Lasarte-Oriako edozein dendatan eros daiteke.

### ✱ Zein dira diru-laguntza jaso dezaketen eskolako materialak?

Diru-laguntzak jaso ditzaketen eskolako materialtzat hartuko dira honako elementu hauek:

- ✓ Idazmahaiko materiala eta suntsikorrak: arkatzak, boligrafoak, ezabagailuak, klipak, zorrozkailuak, erregelak, eskuairak, kartaboiak, garraiagailuak, rotringak, koadernoak, folioak, informatikako kontsumigaiak.
- ✓ Material ez suntsikorrak: karpetak, sailkagailuak, artxibagailuak, estutxeak, kalkulagailuak, konpasak, eskolako motxilak, orri-bereizgarriak.
- ✓ Eskolara joateko beharrezkoak diren janztekoak: eskolako uniformea (eskolako mantalak barne), betaurrekoak edo lentillak (lente zuzentzaileak), heziketa fisikoa egiteko kiroleko arropa eta oinetakoak.
- ✓ Eskulanetarako elementuak, Heziketa Artistikoan, Heziketa Plastiko eta Bisualean, Teknologietan edo Musikan aritzeko (argizariak, pintatzeko olioak, pinturak, pintzelak).

### ✱ Zenbatekoak izango dira laguntzak?

Laguntzak gehienez 75, 50 edo 25 € izan daitezke ikasleko, familia-unitateko kide guztien errentan oinarrituta, honako tarte hauen arabera:

- ✓ Urteko diru-sarrera brutoak 20.000 € artekoak dituzten familiek gehienez 75 €-ko laguntza jaso ahalko dute ikasleko.
- ✓ Urteko diru-sarrera brutoak 20.001 € eta 30.000 € bitartekoak dituzten familiek gehienez 50 €-ko laguntza jaso ahalko dute ikasleko.
- ✓ Urteko diru-sarrera brutoak 30.001 € eta 40.000 € bitartekoak dituzten familiek gehienez 25 €-ko laguntza jaso ahalko dute ikasleko.

Ez da laguntzarik izango 40.001 €-tik gorako errenta brutoak dituzten familientzat.

### ✱ Zein dira kontuan hartzen diren familiako diru-sarrerak?

Errentaren Aitorpeneko inprimakian 2015eko urte fiskalaren "osagai positiboak guztira" laukiaren ondoan ageri den kopurua hartzen da kontuan, eta baita zergari lotu gabe edo salbuetsita dauden errentak ere.

### ✱ Zeri esaten zaio familia-unitatea?

Deialdi honetan aurreikusitako ondorioetarako, familia-unitatetzat hartzen da eskaerako egunean Lasarte-Oriako biztanleen udal-erroldan ageri diren kideek osatzen dutena.

Aita eta ama elkarrekin bizi ez badira eta seme-alaba biek seme-alabatzat aitortua badaukate, agiri bidez akreditatu beharko da hori, Udaleko Zerbitzu Sozialek horretarako egindako txostenaren bidez; nolanahi ere, Lasarte-Oriako Udalak edozein unetan egiaztatu ahalko du zertzelada hori eta datuak benetakotzat egiaztatu.

Haurraren bizi zen gurasoetakoren bat hila bada, familia-liburuaren bidez edo heriotzaren ziurtagiria aurkeztuz akreditatuko da.

Gurasoak separatuta edo dibortziatuta badaude, ez da kide kontagarritzat hartuko laguntza-eskatzailearekin batera bizi ez dena. Separazioa edo dibortzioa honela akreditatuko da:

- ✓ Egitatezko separazioaren kasuan, notario-agiria aurkeztu beharko da, edo banantzeko demanda jarri izanaren sinestamenduak edota egoera hori frogatzen duten beste agiri batzuk.
- ✓ Separazioa legezkoa edo dibortzioa bada, hori erabakitzen duen epai judiziala aurkeztu beharko da, edo adingabearen zaintza ageri den hitzarmen arautzailea.
- ✓ Inor ezingo da aldi berean bi familia-unitatetako kide izan.

### ✱ Laguntza jaso al dezakete beste herri batzuetan eskolatuta daudenek?

Baita ere. Baldintza bakarra Lasarte-Orian erroldatuta egotea da.

### ✱ Laguntza jaso al dezakete Haur-Hezkuntzan matrikulatutako adingabeek?

Ez. Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapetan eskolatutako adin txikikoei bakarrik zuzenduta dago laguntza. Batxilergoan, Lanbide-Heziketan edo goi-mailako ikasketetan eskolatutakoak ere ez dira laguntza hauetan sartzen.

### ✱ Zer-nolako kirol-arropa aintzat hartuko da laguntzetan?

Heziketa Fisikoa egiteko balio duen edozein, betiere kirol bakarrerako espezifikoa ez bada.

### ✱ Eskaerarekin batera Errentaren Aitorpena aurkeztu behar al da?

Ez. Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatuko dizkio errentari buruzko datuak eta ondoren Errentako datuak erreklamatuko dizkie 2015ean Gipuzkoako zergadun izan ez ziren pertsonei.

### ✱ Egindako gastuarekiko proportzionala izango al da laguntza?

Ez. 2016. urterako laguntzak 75, 50 edo 25 €-koak izango dira ikasleko, familia-unitatearen diru-sarrera brutoak kontuan hartuta.

### ✱ Laguntza jaso al dezaket hainbat seme-alabagatik?

Bai. Betiere ezarritako baldintzak betetzen badira eta eskaeran ageri badira laguntza jasotzeko eskubidea duten familia-unitateko adingabe guztiak.

### ✱ Fakturak: Noiz entregatu behar dira eta nola?

Laguntzaren onuradun izan ahal izateko, fakturak entregatu behar dira. Horretarako, faktura originalak (edo faktura sinplifikatuak, ticketak) aurkez daitezke eskaera presentzialarekin batera, edo telematikoki eskaneatuta dokumentu elektroniko sinadura digitalarekin bidez eskaerarekin batera.

### ✱ Zer da faktura sinplifikatua?

Legezko faktura bat da, faktura konbentzionalak baino informazio gutxiago duena baina kasu honetan baliagarria. Zirkunstantzia jakin batzuetan egin daiteke (adibidez, 400 € baino gutxiagoko salmentetan) baina ezinbestez adierazi behar ditu zenbakia, data, IFZ eta egin duenaren izena eta bi abizenak edo enpresaren izena, erositako ondasun edota zerbitzuen identifikazioa, zerga-tasa eta zenbateko totala.

### ✱ Laguntza jaso dezakeen materiala ageri duten faktura guztiak zerrendatu behar al ditut?

Ez. Nahikoa da laguntzaren gehienezko zenbatekoa osatzen duten arte egitea, hau da, 25, 50 edo 75 € seme-alaba bakoitzeko.

### ✱ Eskolako materiala erosi dut eta ez daukat fakturarik, zenbateko osoa adierazten duen ordainagiri bat baizik ez. Zer egin behar dut?

Erosketa egindako Lasarte-Oriako establezimenduari faktura eskatu, beste edozein transakziotan bezala, edo bestelako eskolako materialagatik daukazun beste faktura batekin justifikatu.

### ✱ Seme-alaba bat baino gehiago badut, horietako bakoitzarentzat eskaera bat egin behar al dut ala denentzat bakarra?

Eskaera bakarra egin behar duzu, eta hartan adierazi laguntza jasotzeko eskubidea duten familia-unitateko adingabe guztiak.

### ✱ Nire seme-alaba Batxilergoa egiten ari da. Laguntza jaso dezake?

Ez. Lehen Hezkuntzan edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eskolatutako adingabeei zuzenduta daude laguntzak.

### ✱ Errentaren aitorpena ez dut Gipuzkoan egin. ¿Zer egin behar dut nire diru-sarrerak kalkula ditzaten?

Zergak zein lurraldetan ordaindu dituzun, hango Errentaren Aitorpena entregatu, Udalak eskatzen dizunean.

### ✱ Behin eskaerak ebatzita, nola jakingo dut laguntza eman zaidan ala ez?

Informazio hori zure posta elektronikoan jasoko duzu. Udaleko Iragarpen eta Ediktuen Taula Digitalean argitaratuko den listan ere kontsultatu ahalko duzu.

### ✱ Arazoak ditut IZENPE edo DNIe txartelarekin, ezin naiz sartu, ezin naiz identifikatu, etab. Zer egin dezaket?

Kontaktatu hauekin: Izenpe www.izenpe.com helbidean edo DNIe www.dnielectronico.es helbidean.



# FAMILIEI ESKOLAKO MATERIALA EROSTEKO LAGUNTZA ETA LASARTE-ORIAKO MERKATARITZAREN ALDEKO BABESA

## 2016-17 IKASTAROA

Oinarriak: www.lasarteoriasarean.eu/laguntzak

LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO

El Ayuntamiento de Lasarte-Oria convoca ayudas para la adquisición de material escolar en comercios de Lasarte-Oria para el alumnado matriculado en cualquiera de los cursos correspondientes a los niveles de Enseñanza Obligatoria (primaria y secundaria):

## ✱ ¿Dónde puedo comprar el material escolar?

El material escolar se puede comprar en cualquier comercio de Lasarte-Oria.

## ✱ ¿Qué se considera material escolar subvencionable?

Se consideran material escolar subvencionable los siguientes elementos:

- ✓ Material de escritorio y fungibles: lápices, bolígrafos, elementos para borrar, clips, sacapuntas, reglas, escuadras, cartabones, transportadores, rotrings, cuadernos, folios, consumibles informáticos.
- ✓ Material no fungible: cartapacios, clasificadores, archivadores, estuches, calculadoras, compases, mochilas escolares, separadores.
- ✓ Artículos de vestir necesarios para la actividad escolar: uniforme escolar (incluidas batas escolares), gafas o lentillas (lentes correctoras), ropa y calzado deportivo para la práctica de la educación física.
- ✓ Elementos de manualidades para la práctica de Educación Artística, Educación Plástica y Visual, Tecnologías o Música (ceras, óleos, pinturas, pinceles).

## ✱ ¿A qué importe ascienden las ayudas?

Las ayudas pueden ser de un máximo de 75, 50 ó 25 € por alumno en base la renta de todos los miembros de la Unidad Familiar, según los siguientes intervalos:

- ✓ Las familias con ingresos inferiores a 20.000 € brutos al año podrán recibir una ayuda máxima de 75 € por alumno.
- ✓ Las familias con ingresos entre 20.001 € y 30.000 € brutos al años podrán recibir una ayuda máxima de 50 € por alumno.
- ✓ Las familias con ingresos entre 30.001 € y 40.000 € brutos al año podrán recibir una ayuda máxima de 25 € por alumno.

No se contemplan ayudas para rentas brutas familiares por encima de 40.001 €

## ✱ ¿Cuáles son los ingresos familiares que se tienen en cuenta?

Se trata de la cifra junto a la casilla "Total de componentes positivos" del ejercicio fiscal 2015 del impreso de la Declaración de Renta, más los ingresos no sujetos o exentos.

## ✱ ¿Qué se considera Unidad Familiar?

A los efectos previstos en la presente convocatoria, se considera que conforman la unidad familiar los miembros que constan en el Padrón Municipal de Habitantes de Lasarte-Oria a fecha de la solicitud.

En caso de que no exista convivencia entre el padre y la madre, y el hijo esté reconocido por ambos, deberá acreditarse documentalmente mediante el correspondiente informe de Servicios Sociales Municipales; sin perjuicio de que el Ayuntamiento de Lasarte-Oria, en cualquier momento, podrá comprobar este extremo y autentificar los datos.

En caso de fallecimiento de alguno de los progenitores del niño que convivieran con él, se acreditará mediante el libro de familia o la aportación de certificado de defunción.

En caso de separación o divorcio, no se considerará miembro computable aquel de ellos que no conviva con el solicitante de la ayuda. La separación o divorcio se acreditará de la siguiente manera:

- ✓ En la separación de hecho, se deberá presentar documento notarial, o justificante de interposición de demanda de separación u otros documentos que avalen dicha situación.
- ✓ Si la separación fuera legal o divorcio, deberá presentarse la sentencia judicial que determine la misma o convenio regulador donde conste la custodia del menor.
- ✓ Nadie podrá formar parte de dos unidades familiares al mismo tiempo.

## ✱ ¿Pueden optar a la ayuda los escolarizados en otras poblaciones?

También. La única condición es el empadronamiento en Lasarte-Oria.

## ✱ ¿Pueden optar a la ayuda los menores matriculados en Educación Infantil?

No. La ayuda se dirige a menores escolarizados en las etapas de Educación Primaria y Educación Secundaria Obligatoria. Tampoco pueden optar a las ayudas los escolarizados en Bachillerato, Formación Profesional o niveles de estudios superiores.

## ✱ ¿Qué tipo de ropa deportiva contemplan las ayudas?

Cualquiera válida para la práctica de Educación Física y que no sea específica para un sólo deporte.

## ✱ ¿Hay que presentar la Declaración de la Renta con la solicitud?

No. El Ayuntamiento solicitará los datos de Renta a la Diputación de Gipuzkoa y posteriormente reclamará los datos de Renta a las personas que no fueron contribuyentes en Gipuzkoa en 2015.

## ✱ ¿La ayuda es proporcional al gasto realizado?

No. Las ayudas son para el año 2016 de 75, 50 ó 25 € por alumno en función de los ingresos bruto de la Unidad Familiar.

## ✱ ¿Puedo recibir ayuda por varios hijos?

Sí. Siempre que se cumplan las condiciones establecidas y consten en la solicitud todos los menores de la Unidad Familiar con derecho a ayuda.

## ✱ Facturas: Cuándo hay que entregarlas y, cómo

Para poder ser beneficiario de la ayuda, es necesario entregar las facturas. Para ello, se pueden adjuntar las facturas originales (o facturas simplificadas "TIKETS") junto a la solicitud presencial. O escaneadas junto con la solicitud por vía telemática como documentos electrónicos firmados digitalmente por el solicitante.

## ✱ ¿Qué es una factura simplificada?

Es una factura legal con menos información que una factura convencional, pero igualmente válida en este caso y que se puede emitir en determinadas circunstancias (ventas por valor inferior a 400 €, por ejemplo) pero en la que ineludiblemente deben constar el número, la fecha, el NIF y el nombre y dos apellidos o denominación social del expedidor, la identificación de los bienes y o servicios adquiridos, el tipo impositivo y el importe total.

## ✱ ¿Tengo que relacionar todas las facturas que tengan material subvencionable?

No. Basta con hacerlo hasta que sumen el importe máximo de la ayuda, es decir, 75, 50 ó 25 € por cada hijo.

## ✱ He comprado el material escolar y no tengo factura, sólo un recibí por el importe total. ¿Qué debo hacer?

Requerir factura al comercio de Lasarte-Oria donde se realizó la compra como en cualquier otra transacción o justificar con otra factura por otro tipo de material escolar.

## ✱ Si tengo más de un hijo ¿tengo que hacer una solicitud por cada uno de ellos o una única para todos?

Debe hacer una sola solicitud en la que se encuentren todos los menores de la Unidad Familiar con derecho a ayuda.

## ✱ Mi hijo está cursando bachiller, ¿puede optar?

No. Las ayudas se dirigen a menores que cursan Educación Primaria o Educación Secundaria Obligatoria.

## ✱ No he hecho la declaración de renta en Gipuzkoa. ¿Qué debo hacer para que me calculen los ingresos?

Entregar la Declaración de Renta correspondiente al territorio en el que tributó, cuando se lo requiera el Ayuntamiento.

## ✱ Una vez resueltas las solicitudes, ¿cómo me puedo enterar si me ha sido concedida la ayuda?

Recibirá la información en su correo electrónico. También podrá consultarlo en la lista que se publicará en el Tablón de Anuncios y Edictos digital del Ayuntamiento.

## ✱ Tengo problemas con la tarjeta IZENPE, o DNIe no puedo acceder, no puedo identificarme, etc. ¿Qué puedo hacer?

Contacte con Izenpe en www.izenpe.com o DNIe en www.dnielectronico.es



# AYUDA A LAS FAMILIAS PARA LA COMPRA DE MATERIAL ESCOLAR Y APOYO AL COMERCIO DE LASARTE-ORIA

## CURSO 2016-17

Bases: www.lasarteoriasarean.eu/laguntzak

LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO